

Garai ilunei aurpegi alaia



TOKIKOM





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak eta familia konstelazio tailerrak. Herbodietetikan eta fitoterapiari aholkularitza, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. Berial

- Triunidad esentziak.
- Aestero, barazki biologiko otarrak.
San Bartolome, 29
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea.
Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
Mendaron astelehen eta asteazkenetan: 15:00-16:30

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero:
9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dratnazaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).
San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriren egindako plantilak.
- Hanka diabetikoaren zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko, 20 behe
Tel: 943 741 645
Ordutegia:
9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.
Fisioterapia eta osteopatia.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

C.R.F. erreabilitazio zentroa

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.
San Inazio, 2
Tel.: 943 743 374
Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

Fisioterapia eta kirol berregokitze zerbitzu berria (JAVI MUÑOZ)

- Esku-terapia
- Terapia miofasziala
- Puntzio lehorra
- E.P.I.
- Esku drainatze linfatikoa
- Fisioterapia haurdunaldian
- Kinesiotaping
- Kirol berregokitzea
- Osasunerako ariketa agindua
Aupa Zen
Medikuntza-Estetika zentroa
Jausoro plaza, 1 behe
(Udaletxeko zubitik gertu!)
Tel.: 943 743 440

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behe (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

Leku eder

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harrentzako tratamenduak
- PADI
Elena Herrero Lobo medikua
Aita Agirre enparantza,
5 behe.
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behe
Tel: 943 531 869



OPTIKAK

Zatozte Aingeru Guardako jaiak elkarrekin ospatzera

Hegoalderantz begira jarritz gero, Mendarok han du bere zaindaria: Aingeru Guarda. Eta, jakina, urte osoan bere lana horren ondo betetzen duenak beti merezi duenez bere ordainsaria, martxoaren 1ean Plazako aingeruaren omenezko jaiak ospatuko dugu Mendaron. Garai batean Plaza auzokoen jaiak izaten zen Aingeru Guardakoa, baina orain, mendaroak guztiek beretzat duten jaiak da. Era berean, edadeko jendeari zuzendutako jaiak izaten zen sasoi batean, baina orain, heldu, haur eta gazte jendea ere batzen du. Eta baliteke hori kasualitate hutsa ez izatea. Izan ere, gazte koadrila batek osatzen dugu orain Aingeru Guardako jai batzordea. Orain hiru bat urte hartu genien erreleboa geure gurasoei, horrenbeste urtean, auzolanean, auzo ezberdinei izaera propioa ematen saiatu ziren haiei guztiei, eta errelebo aldatze horrek ilusioa ekarri du. Ilusioa guri, gazteoi, eta ilusioa horrenbeste lan egindako gure zaharrei ere.

Duela hiru urte hasi ginen galtzar zegoen ohitura hori suspertzeko lanean, zahar izanagatik inoiz ez direlako ohitura zaharrak gutxietsi behar, eta urtetik urtera, saiatzen gara egitarau oparagoa antolatzen. Era berean, herritarren parte-hartzea bera ere nabarmen hazi da, eta horrek lanean jarraitzeko indarra ematen digu.

Auzolana, auzoetako jaiak, auzo-sentimendua... Mendaro herriaren ezaugarriak izan ohi dira beti. Herri

txikia da gurea; gazta baten antzera, zati txikitik banatutakoa, eta atal horietako bakoitzak bere izaera, erritmo eta funtzionamendua izan du beti, eta du gaur ere. Gu geu ere aitzakia horrekin hasi ginen Aingeru Guardako jaiak geure erara ospatzen. Plazatarren seme-alabak gara guztiok; berezitasun hori dugu, eta geure erara ospatzen genuen jaiak, koadrilaran. Hasiera batean, afari eta parranda on bat egitearen aitzakian, *txin-txin* bat egiten genuen plazatarren alde, edozein afalostetan, baina duela hiru urte, jai hori gainerako guztiarekin ospatzea erabaki genuen, eta geure aurrekoek hasitako lanari heldu genion.

Hiru urte dira Eibarko tabernetan sukaldatutako ideia hari forma ematen hasi ginen eta urtetik-urtera lan hobea egiteko konpromisoa hartu genuela. Aurten ere, beraz, gonbidatuta zaudete Aingeru Guardakoaren omenez txorixo otarteko bat eta txakolin fresko bat hartzera.



Lurdes Rodriguez

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Aurten ere gonbidatuta zaudete Aingeru Guardakoaren omenez txorixo otarteko bat eta txakolin fresko bat hartzera”

12

HILABETE
INTERESERIK
GABE!



32" edge LED
HD ready

USB - ethernet
SONY KDL32EX421
Telebista

389€



A+++ A B

1200 bira, 7 Kg

AEG-A+++ L62850L
garbitzailea

499€



Conbi
SAMSUNG
RL47 LCSW

No-Frost
clase A+
188x59'5x64'6

429€

* Banketxearen onarpenari lotua. %2ko komisioa kontua zabalzerakoan. Balioak akats tipografikoan egon ezan edo produktuen aldatzean. 2012-02-29




Ubitarte 11
943 741 487
bire@milar.es

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Ei, gazte, eta zuk zer diozu?

Pentsatu al duzu inoiz zuk ere baduzula zer esanik? Zure iritziak ere garrantzia duela? Zer diozu gure herriari buruz? Zer iritzi duzu, hirigintza, hizkuntza, hezkuntza, ekonomia... inguruan?

Hona hemen zure iritzi, pentsamendu eta kezkek partekatzeko aukera: gazteok, gazteontzat eta gazteon artean, otsailaren 25ean, 10:00etan, Gaztetxean.

Elgoibar saretzen ☞

Lodosako Ibaialde ikastolaren alde

Nafarroa Garaiko zonalde ez euskalduneko ikastolak finantza egoera larrian daude. Horren adibide argia da Lodosako Ibaialde Ikastolak bizi duen egoera, ateak ixteko zorian baitago. Hori dela-eta, *ikasle bat euro bat* egitasmoa abian da.

Elgoibar Ikastolak eskerrak eman nahi dizkie elkartasun-ekimenean parte hartu eta lagundu duten ikasleei, familiei eta langileei.

Kontuan izan, ekimenak martxan dirauela, eta parte hartu nahi duenak ekarpenak honako kontuan egin ditzakeela: Euskadiko Kutxa 3035.0153. 46.1531026051

Elgoibar Ikastola ☞

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitzik argitaratuko.



Unai
Arrieta

Nire kirol ibilibidean sarri ikusi dudan fenomeno baten inguruko iritzia agertu nahi dizut,

Zuhaitz. Tamalez askotan bizi eta behatu izan dudan gertakaria da. Iruditzen zait kirol munduan oro har, bade-la zabaldurik nolabaiteko jarduera psikopedagogiko negatiboa. Kirolaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu horretan, askotan topo egin dut ikuspegi ezkorrez lan egiten duten entrenatzaileekin. Asko dira arreta ongi egindakoan baino gehiago akats eta huts egiteetara bideratzen dutenak, kritika, gaitzespena eta zigor-neurriak erabiliz.



Zuhaitz
Gurrutxaga

Kaixo, Unai. Erabat ados nago zuk aipatutakoekin. Hainbeste urtean zehar jasan behar izan ditugu entrenatzaile ezkor, umore txarreko eta zaratatsuak. Zorionez edo zoritarrez, ez dut kirola ez den beste lanbiderik izan, eta ez dakit ongi beste enpresetan nolako ote den nagusi eta langilearen arteko erlazioa. Kirolean, ordean, sarritan ikusi izan dut, eta baita jasan ere, entrenatzaileen berba txar, zigor eta ezkortasunik.

“Garaiak aldatuz doaz, eta ikusi besterik ez dago entrenatzaile onenek darabilten filosofia”

“Nago, Zuhaitz, emozio positiboek lotura estua dutela gizakiaren errendimenduari”

Aitortu behar dizut, Zuhaitz, jarduteko modu horrek sutan jartzen nauela. Ezin dut jasan zigorra (izan ekintzazkoa edo hitzezkoa) sariaren aurretik jartzetik, ez eta espektatiba baikorren gainetik iragarpen ezkorragi egiterik ere.

Zientziak azken urteetan argi azaldu digu denok dauzkagula geure alderdi on eta positiboak, denok dauzkagula hein batean nolabaiteko potentzialitateak edo indar pertsonalak. Zientziak garbi azaldu digu aholku positiboekin gehiago ikasten dugula debeku eta galarazpenekin baino. Zientziak ozen esan digu baloratzen eta txalotzen den jokabideak irauteko aukera handiagoak dituela. Nago, Zuhaitz, emozio positiboek, ongizateak eta zorientasunak lotura estua dutela gizakiaren errendimenduari.

Testosteronaren izenean, oihu eta zarataka jokalaria errendimendurik onena lortuko duela uste duen lider asko ezagutu dut. Hainbatetan entzun dut entrenatzaile mota hori eskola zaharrekoa dela, baina gaur egun ere ikusten dut jokabide bera duen entrenatzaile bankiloetan. Akaso, Unai, halakoetatik ere zerbait ikasi izango nuen neronek ere, baina aukeran emaidazu entrenatzaile lasai eta dialogantea, parez pareko erlaziotik erakutsi nahi dizuna eta ez inposaketa ozena erabiliz. Zorionez, badirudi, garaiak aldatuz doazela, eta ikusi besterik ez dago mundu mailako entrenatzaile onenek darabilten filosofia.

Ni neu nire futbol ibilbideko azken urteetan nabil, eta ez dut uste Guardiola batek entrenatuko nauenik jada. Orain arte ikasi ez dudana hobetzeko aukera askorik ere ez dut ikusten adin honekin. Beraz, aurrerantzerako lanean lasai utziko nauten entrenatzaileak izatea eskatuko dut bakarrik, bankilotik datozkidan oihu eta zaratek ez naute-eta jada batera motibatuko.

Jarri ezazu zure publizitatea

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B

**BARREN
astekarian
943 744 112**



Hondakin organikoen bilketan parte hartzera deitu ditu elgoibartarrak Debabarrenako Mankomunitateak

Kanpainan izena eman dutenek jaso dute dagoeneko gaikako bilketarako materiala

Etxeko hondakin organikoak, bio-hondakinak, biltzeko sistema ezartzen dihardu Debabarrenako Mankomunitateak, eta dagoeneko ekin diote kanpainari Elgoibarren eta Eibarren. Elgoibarren, erdiguneko 1.500 familia zeuden biohondakinaren gaikako bilketan parte hartzera deituta, eta horietatik %12k eman dute izena. Izena emandako horiek jaso dituzte bilketa berrian parte hartzeko materialak: edukiontzia irekitzeko giltza, kuboa, poltsa, konpostagarriak eta esku-orria. Hala ere, norbaitek parte hartu nahiko balu badu oraindik horretarako aukera. Izan ere, Kultur Etxean eskuratu daitezke beharrezkoak diren materialak, aurrez izena eman beharrik gabe. Hori bai, egun jakinak egongo dira horretarako: otsailaren 23an eta 24an, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara, eta hilaren 25ean, zapatuan, 10:00etatik 13:30era. Egun horietan Mankomunitateko teknikari bat egongo da Kultur Etxean, materiala banatu eta interesatuen zalantza guztiak argitzeko. Elgoibarren eta Eibarren hasi dute kanpaina, eta momentuz 5.000 familia inguruk parte hartuko dute.



Edukiontzia marroian bota beharrekoak

Sei edukiontzi jarriko dituzte Elgoibarren, eta hemezortzi Eibarren. Edukiontzi horietan baratzean eta lorategian sortutako biohondakinak bota behar dira, kozinatuak eta kozinatu gabeak: fruta, barazkiak, lekaleak, pasta eta arroz hondakinak, fruta hezurrak, lore eta landare hondakinak, alpistea, baratzeko hondakinak, belarra, okela, arrautzak, arrain eta marisko hondakinak, horien oskol eta azalak, hezurrak, gazta eta bere azala. Era bere-

an, ondorengo hauek ere zaborrontzi marroian bota beharrekoak dira: kafe hondarrak eta iragazkiak, infusio hondarrak eta poltsatxoak; ogi, gaileta eta opil hondakinak, arrautza oskolak eta fruitu lehorren azalak; kortxo naturalezko tapoiak eta txotxak; sukaldeko papera, paperezko ezpain-zapiak, madalenen paperak, paperezko mukizapiak eta kartoizko arrautza ontziak, baldin eta zikinak baldin badaude. Garbiak baldin badaude, baina, edukiontzi urdinera bota behar dira azken horiek guztiak.

Txankakuaren Gabonetako zozketako sariak banatu dituzte



Martitzenean banatu zituzten Txankakuaren Gabonetako zozketako sariak. 500 euroko bi bono eta 100 euroko zortzi bono zozketatu zituzten, eta hauek izan ziren irabazleak: Yolanda Coronado (92.078), Judith Zabala (50.197), Amaia Retolaza (03.011), Ibon Fernandez (85.334), Jose Luis Vicente (91.980), Gloria Canales (2.141), Leire Urbiola (57.669), Ines Ramirez (97.399), Arantza Agirre (91.231) eta Lourdes Lartain (61.013).

Pertsonaia **Ander Errasti**



Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak International Manufacturing Networks izeneko ikerketa-lana argitaratu du berriki, eta Ander Errasti elgoibartarra izan da lan horren egilea. EAEko industria-enpresei dago zuzenduta, eta gida-lanak egitea du helburu. Nafarroako Unibertsitateko Tecnun Ingeniaritza Eskolako irakaslea da Errasti, eta zenbait herrialdetako beste hamalau ikertzailearen ekarpenak ere bildu ditu.

Berbia **'Ni euskalduna'**

Aiton-amonen istorioak jaso eta gure herriko memoria historikoa osatzeko sortu du *Ni euskalduna* bideo-bloga, Metroo sare sozialak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin. Gure herrien historia eta euskalki ezberdinak biltzea, 2.0 komunitateetan euskararen erabilera sustatzea, Interneten eduki berri bat erai ki eta bertan adin guztietako pertsonak biltzea eta gure aiton-amonak teknologia berrietara hurbiltzea dira egitasmoaren helburu nagusiak. Arduradunek esan dutenez, istorioak kontatzeko prest dauden pertsonak behar dituzte. Informazio gehiago, ondorengo webgunean: <http://nieuskalduna.metroo.es/>

Irudia **Kiroldegiko sauna**

Bezero baten "zuhurtziarik eza dela-eta" erre zen Olaizaga kiroldegiko emakumezkoen sauna. Kirol Patronatuko arduradunek azaldutakoaren arabera, saunako erretzaileen gainean arduragabekeriak lagatuko toalla batek sortu zuen sutea. Arduradunek jakinarazi dutenez, martxo bukaerarako berrituta eta erabiltzeko prest egongo da kiskali den sauna. Bien bitartean, gainerako saunak mistoak izango dira, eta bainujanztia erabiltzea derrigorrezkoa izango dela ohartarazi dute.



'Maitasun erromantikoaren mitoak' izeneko tailerra

Maitasun erromantikoaren mitoak izenburuko tailerra antolatu du Elgoibarko Berdintasun Sailak, Maitasunaren inguruan hausnartzeko, eta bide batez, genero rolek eta estereotipoek maitatzeko eran duten eragina aztertzeko. Bi eguneko tailerra izango da. Otsailaren 25ean, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan batuko dira, eta martxoaren 31n, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Eskolak 10:00etatik 14:00etara izango dira, gaztelaniaz, eta Loredi Salegi izango da irakaslea. Interesatuek Elgoibarko Udaleko herritarren arreta zerbitzuan eman behar dute izena, otsailaren 23a baino lehen (943 741050). Ikastaroa doan izango da.

Enplegurako prestakuntza sistema berrian, IMH eta Ikaslan elkarlanean

Ikaslanek kanpaina berri bat hasi du 2012an, ikastetxe, langile eta enpresei Eusko Jaurlaritzak abiatutako Enplegurako Prestakuntza berria aurkezteko. Aurkezpen lan hauetan IMH izango du kolaboratzaile, ikastetxeak formakuntzaren kudeaketan duen eskarmentu handia dela-eta. Plan horrek argi utzi du etengabeko prestakuntzak duen garrantzia krisi garaian, eta iaz, 27.000 langile birziklatu ziren Ikaslaneko ikastetxeetan.

Herri Eskolako umeak bi urtez moduloetan daudela salatu du PPK

Javi Nuñez PPKo zinegotziak Herri Eskolako obrei buruzko hainbat galdera eraman ditu Parlamentura. Herri Eskolako hainbat umek bi modulo prefabrikatuetan jasotzen dituzte eskolak ikastetxean lekurik ez dagoelako, eta hori ez dela Elgoibarko umeek merezi duten heziketa adierazi du Nuñezek. Bere ustez, bi urte "gehiegi" dira egoera honetan egoteko.

KALAMUA GURASO ELKARTEA: ETXEA ETA ESKOLAREN ARTEKO ZUBIA



Arg.: Aitor

Elgoibar bi erroberetan ekimena izan ohi da elkartearen ekintzarik jendetsuena. Joan den urtean marka guztiak hautsi zituen ekimenak, eta 400 pertsona inguruk egin zuten Sallobenterako bidea bizikletan.

Herri Eskolako umeen gurasoek osatzen dute Kalamua Guraso Elkarteak, eta eskolan parte hartzea da haien helburuetako bat. Ez dute eskola zerbitzu modura bakarrik ulertzen. Euren umeak egunero eramaten dituzte eskolara, baina hori baino gehiago ere egin nahi dute. Eskolako eskaintza osatu nahi dute, gurasoen arteko harremana sendotu, eta euren umeei eskolan ematen zaien heziketan eragin. Horretarako “aukera paregabea” eskaintzen die Herri Eskolak euren esanetan, eta ahal den neurrian aukera hori baliatu nahi dute. Umeen heziketa etxean hasten dela kontuan hartuta eta eskolari merezi duen garrantzia emanda, bi mundu horien arteko zubi-lana egiten du Kalamua guraso elkarteak; “betiere umeen hobebharrez”.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Kalamua izena dauka Herri Eskolako gurasoen elkarteak eta eskolako guraso guztiak parte hartu dezaketen arren, hoguei lagun inguru batzen dira gaur egun egunero martxan lanean jarduteko. Ez da, baina, zenbaki txarra, eta gustura daude Andrea Arriola eta Esther Alonso, guraso elkarteak kideak: “Bakoitzak bere eginbeharrak ditu, eta denek ezin izaten dute bileretara etorri, baina gero badago edozein ekintza antolatzen dugunean bileretara agertu ez arren parte hartzen duen jende mordo, eta hori pozgarria da. Gainera, poliki-poliki guraso berriak ere hasi dira elkartearen parte hartzen, eta hori oso ona da, seme-alabak na-

Etxeko eta eskolako munduak elkartzen saiatzen dira Kalamuatarrak eskolan parte hartuz

gusitu ahala batzuek laga egiten dutelako eta erreleboa egotea ezinbestekoa delako; bestela akabo”.

Ekintzak baino askoz gehiago

Mendi irteerak antolatzen ditu guraso

elkarteak, eta bestelako ekintza solteak ere bai. Aski ezaguna da urtero plazatik hasi eta Sallobenterako bidea bizikletaz betetzen duen *Elgoibar bi erroberetan* ekimena ere. Alabaina, Kalamuak ez du bere jarduna ekintzak antolatzerara mugatzen. Ahal dela eskolako parte aktibo izan nahi du zuzendaritza kontseiluan parte hartuaz, umeekin hartueman zuzena izanaz, eta poliki-poliki gurasoen arteko harremanak sendotuaz.

Umeen heziketak batu ditu gurasook elkarte honetan, eta hori eguneroko gaia da euren artean. Azken aldian, gainera, heziketaren inguruko zenbait hitzaldi ere antolatu dituzte. Besteak beste, kirola edo eta fami-

Mendi irteera ugari antolatzen ditu elkarteak. Besaiden izan ziren irteera horietako batean.



lia eta eskolaren elkarren arteko eginkizuna izan dituzte hizpide azken hiltzaldietan.

Era berean, joan den urtean Liburuaren Astean gurasoen eta eskolaren artean egindako ekimenak argi erakusten du guraso askoren inplikatzeko gogoia. Izan ere, ikasketa gela bakoitzean ipuin bat kontatuko zuen guraso bana aurkeztu baitzen boluntario, umeei ipuin bat kontatzeko. Gurasoak oso gustura geratu ziren egindako lanarekin; nahikoa da Esther Alonso ekimen hura gogoratzen entzutea hortaz ohartzeko: "Gela batera joan eta ipuin bat kontatu behar genuen eta egia esan oso ekintza polita izan zen. Azken batean, benetan eskolan sentitzea izan zen zu zeu gela bateko umeei ipuin bat kontatzen jardutea. Eta, gainera, umeei ere ikusten dute ama edo aita bat etorri dela eta, beno, bera ez dagoela hor goizeko bederatzietatik ez dakit zer ordura arte lagata. Baizik eta gurasook ere hor gaudela, eskolan". Antzera bizi ditu Andrea Arriolak eskolako proiektuak direla-eta gurasoek eskolara egindako bisitak: "Proiektuak egiten dituztenean ere, berdin egiten dugu. Adibidez animalien inguruko proiektu bat lantzen badihardute, baserrian bizi diren guraso batzuk etortzen dira eskolara, edo animaliak ekartzen dituzte. Horrek balio du umeei ikusi dezaten gurasoek ere parte hartzen dugula heziketa horretan eta ez dezatela pentsatu beraien mundua banatuta dagoela, alde batean eskola, eta, bestean, etxea. Eta beraien asko gustatzen zaie, gainera, euren gurasoak egunerokotasunean hor izatea. Era berean, ume eta gurasoen arteko harremanak sendotzeko ere balio du".

Ur tantak, hezteko pista txikiak

Ur tantak izeneko egitasmoa ere jarri du martxan guraso elkarteak aurtengo urtean. Izen bereko blog batek eman dio gorputza egitasmoari. Hain zuzen ere, elkarteak bere jardunean landu nahi dituen balore hezitzaile horien inguruko informazioa zabaltzeko konpromisoa hartu du blogaren bitartez.

Bi astean behin heziketarekin lotutako materiala banatzen dute gurasoen artean



Gurasoek ipuinak kontatu zizkieten umeei iaz, Liburuaren Astean. Nork bere abilezien arabera egin zuen lana, eta batzuek ez zuten idatzitako ipuinen beharrik izan.

Era berean, urte hasieran eskolako gurasoei eskatuta osatutako email-sare baten bitartez ere zabaltzen dute bi astean behin interesgarria iruditzen zaien informazio hori. Mota askotako informazioa bidali izan dutela aitortu du Alonsok: "Adibidez Gabonak baino lehenjostailu ez sexistak eta ez biolentoak erosteko irizpideak jasotzen zituen gidatxo bat prestatu genuen gurasoentzako, Berdintasun Saileko teknikariak eta Emakundek lagunduta".

Herri Eskolatik herrira

Eskola bera egon ere goian dagoela diote eta ez zaie arrazoirik falta. Makina bat izango dira herrian, sekula Urazandira igo gabeak. Baina horiei hara igotzeko eskatu beharrean, euren erabaki dute herrira jais-tea. Eskola ez ezik, eskola osatzen duten guraso, ume eta irakasleen taldea herriratzeara da Kalamua guraso elkartearen helburuetako bat, eta bide onean doazela uste dute elkarteko kideek. Sarritan jendeak erakusten duen parte hartzeko gogo faltak sortu izan die buruhauste bat baino gehiago, baina gogotsu dihardute, eta ez ditu horrek kikilduko.

Esateko, erakusteko eta ikasteko, eta erabakitze asko dutela uste duten gurasoak dira kalamuatarrak, eta orain artean bezala, aurrerantzean ere izango dugu beraien berri.

Kalamua guraso elkartearen ataria:
<http://kalamua.wordpress.com/>

Jolas bat antolatzeko nahia dago galdera ikurdun kartelen kanpainaren atzean

Zapatuan eta martitzenean emango dute ezagutzera jokua Madalan



Jolasaren berri eman du mozorrotutako lagun batek joan den aste osoan.

Galdera ikurrez josi zituen norbaitek kaleak, eta zer zen asmatu ezinda ibili gara herritarrok. Galdera ikurdun kartel hori bat zen, eta altxor baten berri ematen zuen. Inork ez zekien ezer, harik eta barixakuan goitik behera mozorrotutako norbait kalera irten zen arte. Kolore horiko bi kaxa eskuan zituela, eskutitzak banatu zituen denda eta tabernetan. Baina horrek ere ez zituen herritarren zalantzak argitu.

Aste honetan ere egunero ibili da mozorrotutako lagun hori kalean gora eta behera, nonbaiten ezkutuan gordeta dagoen altxor hori topatzeko herritarrei laguntza eskainiz. Bihar izango da horretarako egun handia. Aste guztian zehar *Siloves* argitalpenaren bitartez antolatzaileek jakitera eman duten moduan, bihar arratsaldeko laurak aldean Madalara gerturatu beharko dira altxorra topatu nahi dutenak.

Izan ere, jolas bat dago ezkutuko horrenbeste misterioaren atzean. Helburu bi ditu jolas horrek: batetik, altxorra topatzea, eta bestetik, altxor horren bila ondo pasatzea. Jolasa ez da zapatuan altxorra topatutakoan amaituko. Hala adierazi dute behintzat ekimen honen atzean daudenek. Kontrara: lehenengo altxor horrek erakutsiko die aurerako bi-

dea jolastera batu direnei.

Gehiago jakin nahi duenak www.denius.net helbidean aurkituko du informazio guztia. Era berean, joan den astean banatu zituzten *Siloves* argitalpenen ale gehiago ere banatuko dituzte aurrerantzean.

Gazte elgoibartarren ideia

Misterioz betetako ekimen honetan euren izenak ere ezkutuan mantendu nahi dituzten arren, badakigu gazte elgoibartar batzuk daudela jolas honen atzean. Ez da, baina, jolas hori eurek eskuartean daukaten ideia bakarra. Ekintzak eta ikuskizunak edo jaiak antolatuko dituen enpresa bat sortu berri dute. *Denius* dauka izena enpresak, eta jendeari ondo pasatzen lagundu nahi diete. Ezagutu berri dugun *Siloves* argitalpena ere aurrera begira enpresaren berri emango duen aldizkaria izango dela esan dute antolatzaileek.

Ondo pasatzeko helburuarekin, beste-
ei ondo pasatzen lagundu nahi dieten gazte ekintzaileen lehen ekintza ikusi ahal izango dugu beraz, bihar, 16:00ak inguruan, Madalan. Ezkutuko galdera guzti horiek argituz joan ahala, elkarrekin ondo pasatzeko konpromisoa hartu dute *Denius* enpresako gazteek, eta inauteri egunak aproposak iruditu zaizkie horretarako.



Erretratu zaharra



1981

Aste honetako erretratua Jose Manuel Martinezek laga digu. 1981eko abuztuaren 23an ateratako erretratua da, Lerungo futbol-zelaian. Garai hartan CD Elgoibarrek San Bartolome jaietan antolatzen zuen jubenil mailako torneoan ateratakkoa da. CD Elgoibar eta Donostiako Realaren arteko norgehiagokari dagokio erretratua, eta emaitza ez zen izan elgoibartarren aldekoa: 0 eta 5 irabazi zuen Realak! Hori bai, ez da harrizkoa elgoibartarrek galtzea, sasoi hartan Realean jokatzeko zuten jokalariek zein ziren aintzat hartzen badugu. Besteak beste, Elduaien, Albistegi, Iturrino, Ribera edo Txiki Begiristianek jokatu zuten Elgoibarren, denak ere futbolari profesionalak izango zirenak. Ikus dezagun zein diren erretratuan azaltzen diren elgoibartarrak:

Tente, ezkerretik hasita: Iñaki Salegi, Ibarluzea, Carlos Fernandez, Jon Bastida, Humberto Ayesta, Luisfer Rodriguez, Eulogio Mancebo, Nico Charles eta Jose Antonio Etxeberria (entrenatzailea). **Makurtuta**: Aitor Eizagirre, Ramon Unzilla (†), Bixente Alonso, Iñigo Yudego, Cesar Arriola, Imanol Larrañaga eta Carmelo Sanz.



AISIA DEBA HOTELA

debarestaurante@aisiahoteles.com
Tel.: 943 608 052




ZURE AMETSA EGI BIHURTZEN DUGU,
TOKI PAREGABEAN.
JAUNARTZE ETA BATAIO MENUAK,
ZURE GUSTURA EGOKITZEN DITUGU!



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3. soltoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Euskaraz ikasten, euskaraz bizitzeko

In Leikek antolatzeari laga zionetik (2005-2006 ikasturtean), ez da Mendaroren euskaltegirik izan, baina orain, sei urteko etenaren ostean, herrian bertan euskara ikasteko aukera eman die Udalak mendarorrei, eta bederatzi bat lagunek eman dute izena dagoeneko. Euskara ikastera zerk bultzatu di-tuen galdetuta, nork bere arrazoia eman du, baina bada denek errepikatu duten nahi bat: “Euskaraz bizi nahi dugu”. Ikasle saiatuak direla esan dio Alfonso Eugi AEKko irakasleak BARRENI, eta beraz, ezinik ez dute.

Ainara Argoitia

Oso ondo pasatzen dugu, ikusi-ko duzu. Hanka sartzen dugu askotan, baina Alfonso [irakaslea] oso jatorra da”, ohartarazi dio Leonor Barrerarek kazetariari, euskaltegirako bidean. Euskara hutsean ari zaio. “Ni aditza gaizki, baina saiatuko naiz. Ez, ‘ni’ ez, ‘nik”, zuzendu du berehala. Udaletxeko Arno aretoan dago euskaltegia, eta hantxe dute zain Alfonso Eugi AEKko irakaslea, mahai puntan jarrita. 19:00retako kanpaiak jo berri dira, baina tantaka-tantaka datoz ikasleak, karpeta besapean hartuta. Gaurkoa eskola berezia da. Mintzapraktika dute BARRENEKO kazetariarekin. Hasierako lotsak aldera batera laga, eta hasi dira hizketan, euskaraz.

“Nik ez daukat lotsarik, eta ni hasiko naiz”, desenkusatu da Leonor euskara ikastera zerk bultzatu duen azaltzen hasi aurretik. Ez dauka euskaldun bati ulertzeko zailtasunik, baina kostata ari da euskaraz. “Bilobarri euskaraz hitz egin nahi diodalako nator euskaltegira”, bota du. Hizketan ari dela alabari eta irakasleari begiratzen die zeharka, zuzen ari ote den galdezka moduan. Kantabrian

jaiola da Leonor, eta 4 urterekin etorri zen Mendarora gurasoekin. Iritsi eta bat jabetu zen Mendarora herri euskalduna zela eta seme-alabei euskaraz egin behar ziela. Eta egin zuen ahalegina. Ume zirenean saiatzen zen haiekin euskaraz egiten, baina koskortu ziren neska-mutilak, eta gaztelaniaz hasi zitzaizkion amari. Orain, bederatzi hilabeteko biloba bat du, Jare, eta ez du harekin gauza bera gertatzerik nahi. “Euskaraz egin nahi diot”, dio behin eta berriz. Aurki 54 urte beteko ditu, eta “ikasteko garairik onena” joan zaiola aitortu du. Hala ere, gaztetan baino esfortzu handiagoa egin behar baldin badu ere, ez dauka amore emateko asmorik. “Nahi dut, eta ikasiko dut. Ezta, Alfonso?”, galdetu dio irakasleari.

Silvia Gonzalezen kasua ere antzekoa da. 4 urteko alaba bat du, eta harekin euskaraz egin ahal izateko hasi da euskaltegian. Hizkuntza bat ikasteko, nahi izatea baino gauza garrantzitsuagorik ez dagoela jakin badaki, eta hori behintzat sobera dauka. Komunikatzeko behar du euskara, eta besteak beste, lotsa galtzeko dator euskaltegira, ho-



Silvia Gonzalez, Raul Santamarta, Alfonso Eugi ir

rixe duelako euskaraz egiteko trabarik handiena: lotsa. “Kostatzen zait euskaraz hitz egitea”.

Trabarik handiena: lotsa

Lotsa horrek lotu egiten dituela onartu du Raul Santamartak, Leonorren eta Silviaren ikaskideak. Bistan da egiten duena baino gehiago dakiela euskaraz, baina erraztasuna falta zaio. “Nire ama hizkuntza gaztelania da, eta ikastolan ikasi nuen euskaraz. Hala ere, lanean hasi nintzenean asko galdu nuen, eta orain kostatzen zait. Lotsa apur bat galdu eta euskaraz egiteko erraztasuna hartzeko eman dut izena. Ulertzen diela adierazi die irakasleak buruarekin, eta euskaldunok non lagundua badugula nabarmendu du: “Pazientzia handiagoa izan behar dugu”. Euska-



Esperanza Romero, Julia Morales eta Leonor Barreras.

raz egiteko ahalegina egiten duenari errespetu osoa zor zaiola uste du, eta zuzen nahiz oker egin, utzi egin behar zaiola hitz egiten. “Distantzia hartu behar da, eta konfiantza handia dagoen kasuetan bakarrik zuzendu behar zaie, beti ere kontu handiz, atzera bota ez daitezten”, ohartarazi du.

Julia Morales eta Esperanza Romero dira euskaltegiara sartu diren azkenak, baina bat datoz euren ikaskideek esandako guztiekin. Pozik daude Mendaron euskara ikasteko aukera eman zaielako, eta euskara ikasteak lagun berriak egiteko balioko diela uste dute biek ala biek. Euren ikaskide gehienei gertatzen zaien antzera, aditza egiten zaie zaiena; “baldintza, batez ere”, zehaztu du Esperanzak. Morales eta Romero ibiliak dira aurrez euskara ikasten, eta oso esperientzia aberasgarria egin zaiela aitortu dute. Orain, gainera, Mendaroko Udalak erraztasunak eman dizkie euskara ikasteko.

Matrikularen erdia ordaintzen die Udalak, eta euskaltegiara zintzo-zintzo, hutsik egin gabe joaten badira [%80ko asistentzia badute], ordaindutako horren %70 itzultzen die gero. Euro gutxi batzuren truke astean sei orduz euskara ikasteko aukera dute, astelehenetik eguaztenara, 19:00etatik 21:00etara.

Hala, euskara ikasi nahian dabilzan guztiak animatu dituzte, euskaltegiak iraungo badu jendeak izena ematea ezinbestekoa delako. Udalak euskaltegia sortu behar zuela zabaldu zenean jende askok eman zuen izena, baina gero askok atzera egin zuten, eta orain bederatzita laguneko taldetxoa dira. “Elgoibartik hiru etorri direlako osatu ahal izan dugu talde hau”, esan dute Leonorrek eta Esperanzak. Eta esperantza horrekin utzi ditu BARRRENEK, euskaraz ikasten jarraitzeko aukera izango dutelakoan, noizbait euskaraz biziko direlakoan.



LEONOR BARRERAS

“Biloba txikiarekin euskaraz hitz egin ahal izateko hasi naiz euskaltegian”.



RAUL SANTAMARTA

“Eskolan ikasi nuen euskaraz, baina gero asko galdu nuen, eta lotsa apur bat galdu eta euskaraz egiteko erraztasuna hartzeko eman nuen izena”.



ESPERANZA ROMERO

“Orain hiru urte iritsi nintzen Mendarora, eta konturatu nintzen inguruan denek euskaraz egiten zutela. Besteak beste, lagun berriak egiteko nator euskaltegiara”.

Basherri taldea sortu dute Mendaron, baserritarren eta erosleen artean zuzeneko hartuemana bultzatzeko taldea

Bi baserritar eta hamasei familiak osatzen dute momentuz taldea

Mendarok ere badu bere Basherri taldea. Baserritarren eta kontsumitzaileen artean zuzeneko harremana bultzatu eta lurrari lotutako nekazaritza ereduia sustatzeko sortu ziren Basherri taldeak, Gipuzkoako EHNEk eta Biolurrek lagunduta, eta Mendarokoa da Basherri taldeen sare-ara azkena gehitu den taldeetako bat. Azaroan jarri zen martxan, eta dagoeneko bi baserritar edo ekoizle eta hamasei bat familia batzen dira talde horren inguruan. Horri esker, hemen bertako produktuak eskuratzen ditu kontsumitzaileak, sasoiari sasoiko barazkiak eta etxean hazitako txahalen okela, besteak beste, eta bitartekari-rik ez dagoenez, baserritarrek prezio duinago batean saldu ditzakete produktuak. Asteazkenetan egiten dute banaketa, udaletxeko plazan, 19:00etan. Norbaitek taldean sartzeko interesa balu nahikoa du esandako egun eta ordu horretan plazara agertzea, informazio gehiago jasotzeko.

Elkarri laguntzeko konpromisoa

Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko



hitzezko hitzarmen batean oinarritzen da taldea, elkarri laguntzeko konpromisoan, eta hilean behingo batzarretan erabakitzen dute taldearen jarduna. Bi baserritar daude momentuz taldean: Elgoibarko Altzola-Beraseta eta Eibarko Sosola baserria, eta kontsumitzaileekin hartueman zuzena dute. Astero-astero Altzola-Berasetako barazkiak

eta arrautzak jasotzen dituzte taldekideek. Familiaren arabera, hiru tamainatako otzarak prestatzen ditu baserritarrek, garaian garaiko produktuekin. Era berean, oilaskoak eta txahal okela ere eskaintzen ditu Altzola-Berasetarako, eta ogia, gazta eta bildotsa, Sosolak. Horretarako, nahikoa da eguaztenean batzen direnean eskaera egitea.

Gernu infekzioaren gaineko hitzaldia eskainiko du Itziar Mugika erizainak eguaztenean

Gernu-traktuko infekzioa edo *Escherichica colia* delako gaitza osasun publikoko arazo handia da populazioan duen eraginagatik. Emakumeei gizonezkoiei baino gehiago erasaten die normalean, eta kontsultara gernu infekzioarekin joaten den jende oldea ikusita, gaitz horren inguruko hitzaldia eskaintzea erabaki du Itziar Mugika Mendaroko anbulategiko erizainak. Eguaztenean, hilaren 22an, izango da hitzaldia, 15:15ean, udaletxeko pleno aretoan. Gernu infekzioa eragiten duten faktoreen gainean eta bereziki gaitz hori saihesteko erremedioen inguruan hitz egingo du Mugikak, badagotelako gernu infekzioa saihesteko eta tratatzeko modurik, botikarik hartu gabe.

Aingeru Guardako bertso bazkaritarako txartelak

Aingeru Guardako jaien harira, bertso bazkaria antolatu dute martxoaren 4rako, eta interesatuek otsailaren 24ra arteko epea dute txartelak erosteko. Bazkaria Aizpe gastronomia elkartearen izango da, eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ariko dira bertotan. Txartelak Txirristaka eta Ormola tabernetan jarri dituzte salgai, 25 eurotan.

Arnoateko Igoera, martxoaren 3an

Martxoaren 3an jokatu da aurten Arnoateko Igoera. Plaza auzotik irtengo dira korrikalariak, 11:30ean, eta Arnoatera arteko aldapa pikoetan neurtuko dituzte indarrak, 4,5 kilometroko ibilbidean. Izenemateak egunean bertan egingo dira, doan, lasterketa hasi baino orduerdi aurretik.

Bosgarren edukiontzia jarri dute Elgoibarren hondakin organikoak jasotzeko.

Zer iruditzen zaizu biohondakinak jasotzeko martxan jarritako sistema berria?



Luis Diego
64 urte

Oso ondo iruditzen zait. Nik beti berziklatzen dut eta komenigarria iruditzen zait. Baina denerako jendea dago eta batzuk presaka dabiltzalako, besteak okupatuta bizi direlako, sarritan ikusten da zakar-boltsa edukiontzitik kanpo. Ea ez den berdina gertatzen honekin.



Maria Barrutia
90 urte

Ikusi egin beharko nuke ondo zer den. Santa Anan bizi naiz, eta jakin ere ez nekien horrelako ezer jartzekotan zirenik. Kristala, kartoia eta ontziak berziklatzen ditut nik, baina beste horren ingurukorik ez dut entzun. Ondo esplikatu beharko dute, bestela batek asmatuko du zer bota!



Francisco Seijas
69 urte

Nire ustez berziklatzeko den guztia ondo etorria izango da. Eta uste dut ganorazkoak baldin bagara behintzat, aurrera atera beharko litzatekeela aukera berri hau ere. Gure etxean behintzat dena berziklatzen ahalegintzen gara. Gero, bila datorren kamioiean ere bereizita joatea espero dut.



Maritxu Agirregomezkorta
75 urte

Ondo, baina zaila ikusten dut jendeak egin behar dena behar den moduan egitea. Errazena egitera ohituta gaude: dena batera zakarrontzira botatzeko ohitura daukagu. Hori aldatu beharra daukagu, baina, eta horrelako lanak egiteko ardura hartu beharko genuke, guztion onerako da-eta.

SEMAFOROIA




Plaza Txikiko lurrazpiko zabor edukiontzia zabaltzeko aparatuaren kaxa hondatuta dago: “Plaza

Txikiko lurrazpiko edukiontzia automatikoki zabaltzen dira normalean, baina batzuetan eskuz irekitzen dituzte, Plaza Txikian bertan dagoen aparatu batekin. Aparatu hori gordezko kaxa hondatuta dago, eta zinta isolatzailearekin ixten dute. Edonork zabaldu dezake hori, eta ezjakintasunean norbaitek mina hartu dezakeela iruditzen zaigu. Eskertuko genuke konpontzea. Mila esker”.



Pedro Muguruza Etorbideko espaloia txakur kakaz beteta egoten da: “Toletxegain ingurunetik Meliton zubira arteko espaloia txakur kakaz beteta dago azkenaldian. Herrigunea txukun-txukun mantentzeko lan handia egiten du Udalak, baina zonalde hori ahaztuta dauka, nonbait. Jende asko bizi da Pedro Muguruza kalean, eta pasiatzera ere asko joaten gara San Antolin aldera. Espaloia txakur kakaz beteta ikusi beharra ez zaigu batere gustatzen. Txakur jabeei eskatuko nieke tentu gehiago edukitzeko txakurrek kaka egiten dutenean, eta Udalari, berriz, ingurune hura ere arretaz garbitzeko”.



Taberna giroari musika jarriko dio gaur Sinuosek Kultur Etxeko sotoan

Irudia eta musika uztartuko dituzte The tavern izeneko ikuskizunean

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Sinuosek kontzertua emango du gaur, inauteri jaien hari-
ra. Iban Urizarrek eta Patxi Zabaletak osatzen dute Sinuose bikotea, eta 1997. urtean hasi ziren inauterien bueltan ekitaldiak antolatzen. Malape tabernan egiten zuten lehenengo, Herriko Antzokian ondoren, eta azken urteotan Kultur Etxeko sotoan biltzen dira. Gaurko ikuskizunari The tavern izena jarri diote, eta irudia eta musika uztartuko dituzte. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta 22:45ean zabalduko dituzte sotoko ateak.

Ikuskizunerako aukeratu duten izenak berak adierazten duen bezala, taberna giroari eskainitako kontzertua izango da. Taberna giroko bost egoera grabatu dituzte egunotan, eta irudi horiek musika jarriko diete zuzenean Iban Urizarrek eta Patxi Zabaletak. Irudi horiek Iratxo tabernan grabatu dituzte, eta herriko hainbat lagunek jardun dute aktore lanean. Sinuoseraren kontzertuan ohikoa denez, inprobisazioak indar handia izango du gaurkoan ere.



Liverpool-eko ikasleak egon dira Elgoibarren, ikastolako gaztetxoan etxeetan



Gaur itzuli dira berriz ere Ingalaterrara hamar egunean Elgoibarren egon diren ikasle ingelesak. Urtero bezala, hizkuntzak ikasteko elkartruke programa prestatu du Elgoibar Ikastolak, eta ondoren Elgoibarko gaztetxoak hara joateko, lehenengo ingelesak etorri dira hona. Gaztelania ikasten dihardute ingelesek han, eta horretarako etortzen dira Elgoibarrera urtero 14 eta 15 urte arteko gaztetxoak. Elgoibarrera etorrita, hemen inguruko leku esanguratsuak ezagutzeko aprobetxatu ohi dute; tartean, udaletxea erakutsi zien Alfredo Etxeberria alkateak, eta BARRENEKO erredakzioan ere izan ziren astelehen goizean. BARREN non eta nola egiten den ikusi ahal izan zuten, eta hain justu ere, astelehenerako bisitaren ostean ateratakoa da argazki hau.

Haritz dantza taldea Dantzan.com atariaren alde

Dantzan.com webgunearen aldeko babes kanpainarekin bat egin du Elgoibarko Haritz dantza taldeak.

Orain hamar urte jarri zuten martxan Dantzan.com webgunea eta denbora horretan dantzaren inguruko makina bat informazio batu dute atari digital honetan. Orain, ordea, diru-murrizketak dirrela-eta, urtarrilaren 1etik aurrera ataria itxi behar izan dute ardura-dunek, orain arteko diru-laguntza guztiak bertan behera geratu direlako eta horregatik, atariaren aldeko babes talde bat sortu dute. Babes talde horrek Dantzan.com webgunearen aldeko gutuna idatzi du, eta Euskal Herriko eragile ugari egin bezala, Haritz dantza taldeak ere bat egin du babes kanpainarekin. Dantzan.com atarian eman daiteke babes-atxiki-mendua.

Hasi da mozorro festa

Ikastolakoan Euskal Inauteriak hasiko ditu jaiak, eta martitzenera bitartean hainbat ekitaldi egingo dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Inauteriak Europako eta Ameriketako herrialde gehienetan ospatzen dira neguaren amaiera aldera. Negua amaitzen dela iragartzeko jaiak dira, hain zuzen ere, eta umorez ospatzen dira. Mozorro festak eta desfileak izaten dira han eta hemen inauterietan.

Izen desberdinak erabili ohi dira mozorroen festa hori izendatzeko. Hiz-

kuntza gehienetan 'Karnabala' hitza erabiltzen da, eta haragiarekin zerikusia dauka izen horrek. Hain zuzen ere, askatasun osoarekin lotzen ziren jai horiek aintzina, eta dena debekatuta zegoen garaian, karnabalak izaten ziren askatasunerako egunak. Hitzaren etimologiari begiratu gero, Garizuman haragi-jatearen debekuari erreferentzia egiten dio, adituen arabera.

Euskal Herrian, baina, beste izen batzuekin ezagutzen dira karnabalak: inauteriak, inauteak, ihoteak eta arastuek deitzen zaie jai horiei; bestelako izen bereziak erabili izan dira, hala nola Lapurdin eta Nafarroan zantantzarrak (jaietako pertsonaiari erreferentzia eginez) eta Gipuzkoan asteartinak (inauterietako astearteari erreferentzia eginez).

Inauteriak Elgoibarren eta Mendaron

Elgoibarren gaur hasiko dira inauteriak, eta festa giroa izango da nagusi martitzenera arte. Ikastolakoan Euskal Inauteriak emango die hasiera jaiak. 15:15ean irtengo dira ikasle eta irakasleak ikastolatik, eta Plaza Handira arte joango dira kalejiran. Bihar, bestalde, etxeko txikienak izango dira protagonistak arratsaldean. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Atxutxikaraokea izango da Plazan, eta artista txikiek dantzarako zein kanturako dituzten dohainak erakutsiko dituzte. Gauean, berriz, nagusien txanda izango da, Madalako mozorro eta koreografia lehiaketan. Mauxitza txarangak ere ez du hutsik egingo, eta kaleetan musika giroa jartzeko ardua izango du. Azkenik martitzenean, mozorroen elkartratzea egingo dute Plaza Handian.

Mendaron, bestalde, bihar izango da inauterietako egun handia. Goñati pilotalekuan mozorroen festa egingo dute, Arno guraso elkarteak antolatuta. Parte hartzen duten guztientzat txoko-



late jana prestatu dute, eta segidan, pailazoan emanaldia egongo da.

Gaurtik hasita, martitzenera arte, beraz, mozorroak dantzan jardungo dute.



Euskal Herriko Mendi Eskiko Txapelketa irabazi du Iñigo Larizek, Euskadiko Koparako proba puntuagarria

Kopako azken proba, Andres Regil Kopa, martxoko bigarren astean jokatu du

Euskal Herriko Mendi Eskiko Banakako Txapelketa irabazi du asteburuan Iñigo Larizek, Luchonen, Frantzian (duela bi aste jokatu zen bikotekakoa). Lasterketa hori Euskadiko Koparako proba puntuagarrietako bat da. Lau dira guztira, eta asteburu honetakoarekin hiru dira orain arte jokatu dituztenak. Laugarrena, Andres Regil Kopa, martxoko bigarren astean jokatu du Europako Mendietan. Laugarren proba hori bikoteka jokatzen da, eta Espainiako bikotekako txapelketa ere badenez, euskal selekzioko eskiatzaileren bat izango du lagun Larizek.

Tirapurekin lehia

Asteburuan jokatu duen Euskal Herriko Mendi Eskiko Txapelketan hiru igoera eta 1.800 metroko desnibela gainditu behar izan ditu eskiatzaile elgoibartarrak. Probaren gogorrari, gainera, hotza ere gehitu zaio aurten (zero azpitik hamalau graduko tenperatura egin du), eta horrek are gogorragoa egin du lasterketa bera. Hala ere, irten ziren unetik lasterketa buruan ibili zen Lariz uneoro, Javier Tirapu nafarrarekin lehia estuan. Azkeneko jaitsieran erabaki zen txapelketa. Jaitsiera teknikoa zen oso, eta Lariz aurretik zihoan, baina erorikoa izan eta Tirapuk aurrea hartu zion. Zortea bere aldeko izan du, baina, oraingoan Larizek, Tirapu bera ere jausi egin zelako aurrerago, eta haren aurretik helmugaratzea lortu zuelako. Saillkapen nagu-



Joseba Tobar, Iñigo Lariz eta Javier Tirapu lehenengo hiru sailkatuak, federazioko ordezkari batekin, podiumean.

sian seigarren egin zuen, baina bera izan zen lehen euskal herritarra, eta hortaz berak jantzi zuen txapela. Emakumezkoetan Amets Maiztegi gailendu zen, Nahia Quinquocesen aurretik. “Handia izan da niretzat, eta oso pozik nago. Denboraldi osoan aurrean ibili naiz, baina batzuetan zorte txarratik eta besteetan estrategia txarra aukeratzeagatik ez dut ezer egiterik lortu orain arte”, esan du.

Nora Santiago eta Unai Sanz Gipuzkoako txapeldun, kros motzean



Arg.: Manu Sanchez

Hernaniko Adarraga memorialean hartu zuten parte joan zen domekan Mintxeta atletismo taldeko korrikalariak. Lasterketa gogorra izan zen, hotzak ibilbidea izoztu zuelako. Hala ere, Elgoibarko partaideek emaitza onak lortu zituzten. Nabarmenezkoak dira, besteak beste, Nora Santiagok (junior maila) eta Unai Sanzek (jubenil maila) Krosean lortutako garaipenak. Lorea Santiagok hirugarren egin zuen jubeniletan.

Bestalde, Eskolarteko Gipuzkoako kros txapelketa ere jokatu zen Hernanin, eta Mintxeta Atletismo Taldeko antxitxikariak primeran moldatu ziren. Alebin mailan Ander Armendiak, Asier Zabaletak, Markel Zabalak eta Eneko Bermejok osatutako taldeak lortu zuen lehen postua eta infantil nesken taldeak (Nora Mandiola, Maria Arrieta, Nagore Bergara eta Nerea Perales) bigarren postua. Azken hauek bi aste barru Elgoibarren jokatu duen Euskadiko Txapelketa jokatzeke txartela eskuratu zuten.

Alberto Fernandez espainiako mendi taldean parte hartzeko aukeratu dute

Hiru urtez egongo da gizonezkoen mendi taldean

Alberto Fernandez elgoibartarra aukeratu du Espainiako mendiko kirol eta eskalada federazioak Espainiako mendi talderako. Beste bost lagun gehiagok osatuko dute taldea. Mikel Zabalzak zuzentzen duen mendi taldeak urtean lauzpabost irteera egingo ditu datozen hiru urteetan, eta tartean, harkaitz eta izotz eskalada eta eskia praktikak dituzte mendizaleek. Fernandez pozik agertu da horrenbeste kirolariren artean aukeratu izatearekin eta martxoan egingo duten lehen irteerarako gogotsu da goela adierazi du.




Realeko betanoek 0-1 galdu zuten



Realeko betanoek 0-1 galdu zuten Mintxetan, Santanderreko Racing taldearen kontra. Lehenengo zatian ondo jokatu zuen Realak, baina bigarren zatian gehiago izan zen Santander, eta Toñok sartu zuen gola. Ligako estreinaldia beraz, ez da ona izan txuri urdinentzat. Realean Elgoibarko jokalaria batek jokatu zuen, Eugenio Carok, hain zuzen ere.

Mendaroko II. Mendi Lasterketa, apirilaren 15ean

Bigarren urtez jarraian mendiko lasterketa antolatu du Mendaroko Txirindulari Elkarteak. Apirilaren 15ean jokatuko da, eta 24 kilometroko ibilbidea izango du. Interesatuak Mendaroko Morroskillo dendan eta www.herrikrossa.com helbidean eman dezakete izena. Hala ere, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, lasterketa hasi baino lehen. Aurrez izena ematen dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta egunean bertan ematen dutenek 18 euro.



EMAITZAK

FUTBOLA

Lagun Onak 2 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 1 – Urola 1 (Ohorezko erreg.)
Amaiak Bat 3 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)
Sanse 0 – Elgoibar 3 (Kad. A)
Real Union 3 – Elgoibar 2 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 3 – Lazkao 5 (Kad.)
Elgoibar 5 – Lagun Onak 6 (Aleb.)

PILOTA

Udalberri Txapelketa
Igeldo 14 – Lagunak 22 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Añorga 4 (1. mailako jub.)
Pala
Lagunak 23 – Batzokiko 25 (2. mailako nag.)
Pinakurdin 14 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 6 – Castro Urdiales 4 (2B)

ESKUBALOA

Alkorta Elg. 31 – Usurbil 19 (Sen. mut.)
Basauri 21 – Tecnifuelle 27 (Sen. nes.)
Beristain Elg. 29 – Arrasate 23 (Jub. mut.)
Lauko Elg. 22 – Usurbil 19 (Jub. nes.)
Karibe Zaharra 30 – Grupo Eibar Elg. 29 (Kad. mut.)
Kukullaga 25 – IMH Elg. 29 (Kad. nes.)
Astigarraga Elg. 11 – Ereintza 28 (Kad. nes.)
Bankoa Elg. 25 – Pulpo 18 (Inf. mut.)
Txariduna Elg. 31 – Pulpo 14 (Inf. mut.)
Aterpe Elg. 21 – Pulpo 16 (Inf. nes.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18
12:30 Elgoibar – Ostadar (Kad. A)
16:30 Haundi – Alaves (3. maila)
Domeka, 19
11:30 Elgoibar – Bergara (Aleb.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 18
10:15 Aterpe Elg. – Aloña Mendi (Inf. nes.)
11:30 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. nes.)
16:30 Lauko Elg. – Errotaberri (Jub. nes.)

PILOTA

Barxakua, 17
21:30 Lagunak – Aurrera Saiaz (1. mailako jub.)
Domeka, 19
11:00 Lagunak – Goierri (1. mailako jub.)
11:45 Lagunak – Alde Zaharra (Pala. 2. mailako nag.)

LANA

ESKAERA

- Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatua eskaintzen da LH eta DBHko klase partikularrak emateko (irakurketa arazoak, ikasketa teknikak, irakasgaien erreformatza, etab.)
☎ **628 591 462**
- Nagusiak zainduko nituzke. Euskalduna naiz. Urte askotako esperientzia daukat.
☎ **685 729 790**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zein umeak zainduz, interna edo orduka. Erizaintza ikasketak daukat. Garbitzaile eta sukaldari lanak egiteko ere prest.
☎ **669 010 359**
- Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Garbiketa lanak ere egiteko prest.
☎ **648 603 029**
- Adinekoak edo umeak zainduz lan egingo nuke. Jornada erdiz edo orduka. Gaixoei gaua pasatzeko ere prest, asteburuetan ere bai.
☎ **618 052 967**
- LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika eskolak eta kontabilitateko eta finantza kudeaketako klase partikularrak ematen ditut.
☎ **666 042 710**
- Emakumeak lana behar du.
☎ **689 273 664**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka.
☎ **943 742 282**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke.
☎ **659 813 048**
- Emakumea garbiketa lanak (taberna edo elkarteetan) edo nagusiak zaintzeko prest.
☎ **698 632 922**
- Emakumeak gauez nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentzia onekin.
☎ **659 612 096**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest.
☎ **686 578 228**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxez etxe.
☎ **943 744 062**

- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna.
☎ **626 490 986**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteaz zehar.
☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Ingelesko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak.
☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna.
☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.
☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak.
☎ **696 295 098**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna.
☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna.
☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari...
☎ **690 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna.
☎ **692 332 871**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka.
☎ **638 338 816**

ESKAITZA

- Umea zaintzeko emakume euskalduna behar da. Orduka lan egiteko.
☎ **627774543**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Emakumeak bi edo hiru logelako pisua alokatuko luke Elgoibarren.
☎ **699 813 826**

- Etxea alokatzen dut Mendaron. Bi logela ditu eta igogailua. Eguzkitsua da.
☎ **658 379 393** (17:00-19:00 bitartean deitu)
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan.
☎ **618 734 000**
- Merkataritzarako edo biltegi moduan erabiltzeko 35 m²ko lokala alokairuan. Komuna dauka.
☎ **609 360 627**

BESTELAKOAK

- Herri-Gain elkartearen hiru bazkide berrientzako lekua dago. Interesatuak jarri daitezela gurekin harremanetan. ☎ **607 877 225**
- Gaztetxerako sukaldako tresna elektrikoak eta butanozko edo kerozenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko!
☎ **677 898 633**
- Yamaha YZ 250 2T salgai. 2006. urtekoa baina oso gutxi erabilia eta ondo zaindua. Mendian hasteko aproposa! 1900 euro.
☎ **678 587 867**

KINTOAK

- 1969an jaiotako Aita Agirreko ikasle ohien bazkaria otsailaren 25ean. 50 euro sartu behar dira 3035 0007 26 0071030029 kontuan izen abizenekin otsailaren 22a baino lehen.
☎ **667 711 226 / 618 384 303**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



• Zorionak, **Oier**. 5 urte dagoeneko! Datorren urtean ere egin horrelako sanblas goxoak!



• Zorionak, **Erik**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Maddi**, gaur 9 urte betetzen dituzulako. Ondo pasa zeure egunean, eta muxu handi bat Malen eta denon partez.



• **Noa**, urtetxo bat! Zorionak sorgintxo, eta patxo potolo bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Nagore**, etxekoen partez, otsailaren 15ean 9 urte egin dituzulako.



• Zorionak, **Ane**, hila-ren 16an lehen urtea betetzeagatik. Patxo pila bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Naroa**. 9 urte pasatu ditugu zure ondoan, nolako pozal! Muxu handi bat, ama, aita eta lkerren partez.



• Herrira gero eta gutxiago etortzen zara, eta orduko rubixa ttiki harekin akordau bihar. Zorionak, **flower!**



• Zorionak, **Ibon**, gaur 5 urte betetzen dituzulako. Familiako guztien partez, eta, bereziki, Koldo eta Noraren partez.



• Zorionak, **printzesa!** Primeran pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Lau patxo potolo.



• Zorionak, **aibitxa**, eta urte askotarako, 77 urte bete arren gazte-gazte zaude-eta. Muxu potolo bat Bilbotik! Nahia.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



**Ostiral honetan 17:00etatik aurrera
mozorro lehiaketa eta merendola!**

Jantzi zuen mozorrorik onena
eta etorri mundial pasatzera!



**Gaur Eibarrera kaldereroetara,
20an Luz-era eskiatzera
eta 26an Txuri Urdinera patinatzera.
Zatoz gurekin!**

19 domeka

Familia osoarentzako antzerkia

16:30 'Miaules'

Vaiven taldeak aurkeztutako antzerkia.

ZINEA

«Un lugar para soñar»

17, barixakua: 22:15
18, zapatua: 19:00/22:15
19, domeka: 19:00
20, astelehena: 21:30



«Un lugar para soñar» Zuz.: Cameron Crowe. EEBB, 2011. 124 min. Drama. Aktoreak: Matt Damon, Scarlett Johansson, Elle Fanning, Thomas Haden Church, Patrick Fugit. Benjamin Mee izango da filmeko protagonista. Egunkari bateko zutabegilea eta idazlea da Benjamin. Alarguna da, eta berak bakarrik hezi beharko ditu seme-alabak. Lana lagatzea erabakiko du, eta herritik kanpora dagoen etxe bat erosiko du, zoologiko eta guzti. Benjaminek esperientzia gutxi dauka, baina bere senideen eta hainbat laguneren laguntzaz, zoologikoa berriz martxan jarriko du.

INAUTERIAK ELGOIBARREN 2012

17 barixakua

15:15 Ikastolako umeen Euskal Inauteria Ikastolatik Plazara. Euria eginez gero Ikastolako frontoian.
16:30 Mozorro festa ludotekan. Merendola eta mozorro lehiaketa egingo dute.
23:00 Sinuoserren XVI. kontzertua Kultur Etxeko sotoan.

18 zapatua

17:00 Atxutxikaraokea Plazan.
18:30 Gaztetxoeren mozorro desfilea eta koreografiak Plazan, Atxutxiamaikak antolatu.

tuta. Euria eginez gero, Madalako parkean.
19:30 Mozorroen desfilea Mautitxa txarangarekin eta erraldoiekin Plazan hasita.
23:00 Animazioa Madalako parkean, Elgoibarko Izarrak antolatuta.
23:30 Mautitxa txarangaren kalejira.
00:30 Mozorro eta koreografia lehiaketa Madalan, Elgoibarko Izarrak antolatuta.
02:00 Mozorro jaiak Gaztetxean.

19 domeka

18:00-21:00 Dantzaldia Gelatxo orkestrarekin Jubilatuen Etxean.

21 martitena

16:30 Mozorroen elkartzea plazan.
17:00 Kiki, Koko eta Moko pailazoak Plazan. Euria eginez gero, Madalan.
18:15 Mautitxa txarangarekin kalejira, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin batera.
18:30-21:00 Dantzaldia Gelatxo orkestrarekin Jubilatuen Etxean. Mozorro lehiaketa ere egongo da eta bi sari banatuko dira.

INAUTERIAK MENDARON 2012

18 zapatua

17:00-18:00 Pailazoak, Goñati frontoian.
18:00-21:00 Euskodiskoteka, frontoian. Arno guraso elkarteok txokolate beroa banatuko dute.

OKINDEGIA

19 domeka EIZAGIRRE

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

17 Barrenetxea
18 Ibañez
(goizez: Yudego)
19 Ibañez
20 Garitaonandia
21 Etxeberria
22 Fernandez
23 Yudego

Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea
Yudego
Yudego
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia
Yudego

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384



ESKERTZA

PETRA ZUBIAURRE URKIRI

2012ko otsailaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

ALEJANDRA ARREGUI ARREGUI

2012ko otsailaren 13an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

PEDRO AGUIRREGOMEZCORTA IBARLUCEA

2012ko otsailaren 15ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

CARMELO LEON GARCIA

2012ko otsailaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

VALENTIN IBARLUCEA ARANO

2012ko otsailaren 15ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



III. URTEURRENA

JOSE GALARRAGA URIA

2009ko otsailaren 16an hil zen.
Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 18,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.





MAALAKO PARKEAN
16 URTETIK GORAKOENTZAT

23:00etan animazioa

00:30ean mozorro eta
koreografia lehiaketa

01:30ean sari banaketa:

Taldeakako sariak:

1.Saria: 275 €

2.Saria: 175 €

Banakako sariak

(pertsona bat edo bi)

1.Saria: 125 €

Koreografia onenari

1.Saria: 125 €

* Sariak eman gabe gera daitezke

17:00etan ATXUTXIKARAOKEA

(12 urtera arteko haur eta gaztetxoentzako)

18:30ean Mozorro desfile
eta koreografia

(16 urtetik beherakoentzat)

KALEGOEN PLAZAN

(Euria eginez gero

Maalako parkean)